



FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua, behin baino berriz aipatu dugunez Co-housing-ean oinarritzen da. Metodo hau lortzeko, prozedimendu handia dago atzean. Garrantzi asko ematen diogu gure bezeroak ezagutzeari eta beraiekin ondo konpondu ahal diren beste bezeroekin erlazioa sortzeari. Horretarako asko inplikatzeko gara bilerak egiten, horrela bezero eta langileen artean konfidantza handia sortzeko. Konfidantza oinarritzeko dela pentsatzen dugu gure enpresan, konfidantzarik ez badago ezer ez dela aurrera aterako. Gainera, Co-housinga horretan oinarritzen da bereiziki, konfidantza, segurtasun eta erosotasun hori lortzen.



Gure bezeroei buruzko informazioa bildu eta gero, hurrengo pausoa haien egoera pertsonala sakonki aztertzea, haiek ezagutzea eta haien datuen arabera bezeroak elkartzea izango da. Ondoren, etxebizitza partekatuko duten pertsonen aurkezpena egin eta haien arteko harreman bat sortzen saiatuko gara, bateragarriak diren ikusteko.

Prozesu hori nahiko luzea izango da baina bi parteak adostasun batera iristen badira eta pozik badaude gure lanari esker aurkitu duten bizikidearekin, etxebizitza egokiena aukeratzen eta agiriak prestatzen hasiko gara.

Etxebizitza egokiak bilatzea funtsezko jarduerak bat da gure proiektua arrakastatsua izateko orduan. Beste era batera esanda, agureak bizi egingo diren etxebizitzak haien beharrei moldatuta egoteko beharra dago. Hau da, hirugarren adineko pertsonak zailtasun gehiago dituzte bere eguneroko bizitzan. Hau kontuan hartuta, biziko diren etxebizitzak igogailuekin, ranpekin eta komun egokituekin hornituta egon behar dira. Komunaz ari bagara, bainuontzia eduki beharrean, dutxak izan behar dituzte.

Ohikoena logelak pribatuak izatea da, eta gainerako gelak (sukaldea, zerbitzuak) konpartituak izatea. Etxebizitza partekatzea erabakitzen duten pertsonen artean ezartzen da bizi-plana, haien

gustuak eta lehentasunak kontuan hartuta, eta, horretarako, elkarrekin bizitzeko arauak, gastu partekatutakoak, etxeko lanak, atsedeen-orduak, etxeko animaliak eta abar biltzen dituen hitzarmen itundu bat egingo dugu.

Alderdien arteko aurkezpena antolatzeaz gain, aholkularitza, eta etengabeko laguntza pertsonala eskaintzen diegu. Pertsonen arteko harremana erraztuko dugu, bizikidetza-arauak zehazteko eta bizikidetza sor dezaketen gatazkak konpontzeko aholkuak ematen.

Laburbilduz, gure enpresa arrakasta lortu dezan, hiru pausu nagusi bete beharko ditugu. Lehenengoa bezeroen analisisian datza, hurrengo urratsa etxebizitza partekatuko duten pertsonen aurkezpena egitea da eta azkenik bezeroei etxebizitza eskaintzea da.